

# ZURE ETXEBIZITZA EDO ZURE AUTOA EGOKITZEKO DIRU-LAGUNTZA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Adingabea -18 desgaitasunarekin > Diru-laguntzak**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

**Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak eta/edo desgaitasuna dutenak =>%33.**

## Zenbatekoa

**Ordainketa bakarra**, aldundiek ezarritako gehienezko zenbatekoa.

## Baldintzak

**Ezgaitasuna edo mendekotasuna.** Errolda (12 hilabete).

## Zertan datza?

Laguntza ekonomiko honek autonomia pertsonala mugatua duten pertsonen etxebizitzan eta/edo ibilgailu partikularrean egokitzapenak egitea errazten die, irisgarritasuna hobetzeko ([3.3.2 fitxa](#)):

- Etxebizitzan egiten diren egokitzapenak ohiko etxebizitzan bakarrik egin daitezke, bai etxebizitzaren barruan, bai eraikineko elementu komunetan.
- Ibilgailuan egin beharreko egokitzapenen kasuan, ibilgailu partikular batean bakarrik egin daitezke, bai onuradunaren ibilgailuan, bai familia-unitatean.

## Norentzat?

- **Mendekotasun**-egoeran dauden pertsonak (I.,II.,III. graduak).
- **Desgaitasuna** duten pertsonak =>%33.

## Zenbatekoa da?

**Ordainketa bakar**ra. Foru Aldundiek laguntza-produktu mota bakoitzerako gehienezko zenbatekoa zehazten dute.

## Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

**Edozein zerbitzuekin bateragarria da.** Baita xede bererako beste laguntza batzuekin ere, baldin eta laguntzen zenbateko osoak produktuaren kostu osoa gainditzen ez badu.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**Mendekotasuna (I., II. edo III. gradua) edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna** onartua izatea. Prestazioa zein Foru Aldundietan eskatu eta lurralde horretan **errolatuta egotea, aurreko 12 hilabeteetan.**

**Aurreko 10 urteetan** laguntza-produktu mota bera erosteko **laguntzarik jaso ez izana.**

**Beharra onartuta izatea,** Aldundiaren balorazio txostenaren bidez.

Irisgarritasun-irizpide guztiak betetzen dituen **egokitzapen-proiektu bat aurkeztea.**

Ezarritako **gehieneko muga batzuk** gainditzen dituen gaitasun ekonomikorik ez izatea.

## Non eska dezaket diru-laguntza?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

## Informazio gehiago:

- [Etxebizitza edo autoa egokitzeko diru-laguntza Araban](#)
- [Etxebizitza edo autoa egokitzeko diru-laguntza Bizkaian](#)
- [Etxebizitza edo autoa egokitzeko diru-laguntza Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)